

EPE 2011: IZENA EMATEKO INFORMAZIOA: 2011KO UZTAILEKO DEIALDIAK

2011ko uztailearen 27ko EHAAn Osakidetzako Zuzendari Nagusiaren 1282/2011 Ebazpena argitaratu da, uztailearen 15ekoa, hautatze-prozesua arautuko dituen oinarri orokorrak jasotzen dituena.

2011ko azaroaren 29eko EHAAn, Osakidetzako Zuzendari Nagusiaren 1732/2011, 1738/2011, 1739/2011, 1740/2011, 1741/2011 eta 1742/2011 ebazpenak argitaratu dira, honako kategoria hauetako deialdiak eta oinarri espezifikoak jasotzen dituztenak:

F.E. Anestesiologia eta Bizkorketako Medikua
F.E. Kardiologiako Medikua
F.E. Aho eta Aurpegi-Masailtako Kirurgiako Medikua
F.E. Pediatria Kirurgiako Medikua
F.E. Endokrinologia eta Nutrizioko Medikua
F.E. Barne Medikuntzako Medikua
F.E. Otorrinolaringologiako Medikua
F.E. Medikuntza Preventivo eta Osasun Publikoko Medikua
F.E. Urologiako Medikua
F. E. Ospitaleko Larrialdia
F. E. Etxeko Ospitalizazioko Medikua
F. E. Psikologo Klinikoko Teknikaria
F. E. eta Tek.Ospitaleko Farmaziako
F. M. eta Tek. Ospitaleko Erradiofisikako

Kategoria hauetako hautatze-prozesuan **izena emateko epea: 2011ko azaroaren 30eko 8:30etatik abenduaren 19ko 14:00etara.**

Izena emateko **eskabidea** <http://ope2011.osakidetza.net/> web-orrian egingo da. Hautatu hizkuntza eta sakatu “eskabidea”atalean.

Hautatze-prozesuan izena emateko ondokoa egin behar da: eskabide elektronikoa bete eta izena ematearen eskubidearen ordainketa egin. Bata zein bestea izena emateko epearen barruan egin behar dira. Izena emateko epean ez da inolako dokumentaziorik aurkeztu behar.

Hautatze-prozesuan izen-emate elektronikoa egiteko erabili behar duzun **pasahitza** ondokoa da:

- 2011ko Kontratazio-zerrendetan izena eman bazenuen: prozesu hartan erabilitako pasahitza.
- 2011ko Kontratazio-zerrendetan izena eman ez bazenuen, baina, 2008ko EPEn izena eman bazenuen: 2008ko EPEn erabilitakoa.
- 2008ko izena eman ez bazenuen, baina 2008ko Kontratazio-zerrendetan onartuta bazeuden: 2008ko Kontratazio-zerrendetan izena emateko erabilitakoa.
- Aipatutako pasahitzen bidez ezin baduzu zerrendetan izena eman, baina, Osakidetzan lan egin baduzu eta Osakidetzan curriculum vitae baduzu: zure curriculumean erabilitako pasahitza.

- Aipatutako ataletan ez bazaude, pasahitza izango da, eskabidea egiteko aplikaziora lehenengo aldiz sartzeko erabiltzen duzuna. Pasahitza gogoratu beharko duzu hautatze-prozesuari buruz egin beharko dituzun hurrengo kontsultetarako.

- Pasahitza gogoratzen ez baduzu, eska dezakezu eskabide-inprimakiaren bidez, aplikazioak sarbide kontrolean pasahitza eskatzen dizunean. Horrela izanez gero, aipatutako pasahitza erabili zenuen prozesurako emandako posta elektronikora bidaliko dizugu automatikoki pasahitza. Horrela ere, ezingo bazenu pasahitza lortu, edo bidalitakoak eskabidea egiten utziko ez balizu, deitu ondoko telefonora: 945006150, bertan esango dizute zer egin behar duzun pasahitza eskatzeko eta jasotzeko.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko azaroaren 29an.